

JIU-JITSU EGITEN ZUTEN SUFRAGISTAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Londres, 1910eko azaroaren 18a. Parlamentuaren kanpoaldean 300 sufragista inguruk polizien harresiarekin egin zuten topo. Poliziak askoz gehiago ziren eta jende artean zeuden hainbat gizonezko zibilen laguntzarekin, emakumeei gogor eraso zieten. Bi emakume hil zituzten, beste asko zauritu eta ehundik gora atxilotu. Emakumeen botoaren aldeko mugimenduak polizia eta gobernu zituen etsai, indarkeriak gero eta protagonismo handiagoa zuen borroka hartan, eta emakumeek erantzuteko prest egon behar zuten.

Edith Garrud (1872-1971) urte batzuk lehenago hasi zen jiu-jitsu borrokarako japoniar artea praktikatzeko, William senarraren eskutik, eta 1910erako jarduera hura emakumeei irakasten hasia zen. Urte hartan bertan *Votes for Women* aldizkarian idatzitako artikulu batean zioen handik aurrera arerio indartsua izango zutela eta jiu-jitsua oso egokia zela poliziari aurre egiteko. Garrudek berak 1,50 metro besterik ez zuen eta, garai hartan, Londresko polizia izateko gutxieneko altuera 1,78koa zen. Jiu-jitsua, hain zuzen, erasotzailearen indarra haien kontra baliatzean datza.

Prensa fenomenoaren berri jasotzen hasi zen eta berehala "sufrajitsu" hitza erabiltzen hasi ziren beren burua defendatzeko japoniar artea erabiltzen zuten sufragistak izendatzeko.



ARTHUR WALLIS MILLS

"Jiu-jitsu zekien sufragista. Atxiloteta" dio 1910eko ekainean 'Punch' eta 'The Wanganui Chronicle' agerkarietan argitaratu zen komikiak. Eskuinean ageri den emakumea Edith Garrud "sufrajitsua" da.

Emakumeen eta poliziaren arteko lis-karrak areagotu ahala, atxilotetek eta kartzela zigorrek ere gora egin zuten. Sufragista espetxeratuak gose grebak egiten hasi ziren, eta gobernuak Presoen Legea –edo Katuaren eta Saguaren Legea, izen horrekin egin baitzen ezaguna– onartu zuen 1913an, martiririk nahi ez zuelako: gose greban zeuden presoak askatuko zituzten, osasuna berreskuratutakoan berriro kartzelaratzeko.

Horixe egin zuten Emmline Pankhurst mugimenduko buru nagu-

sietakoarekin. Sufragistek ez zuten Pankhurst berriro atxilotzerik nahi eta Edith Garrudek 30 sufrajitsuz osatutako talde berezia osatu zuen buruzagia babesteko, *Bodyguard* (bizkartzain) izenekoa.

1914ko hasieran, Pankhurst Glasgora joan zen 4.000 pertsonaren aurrean hitzaldi bat ematera. Poliziak bizkartzainak baino askoz gehiago ziren eta borroka hura irabazi zuten. Baina ederki kosta zitzairen 30 sufrajitsuak mende hartzea. ■

Zergatik erabiltzen dira korapiloak itsasontzien abiadura neurtzeko?

Antzina, hurbileko erreferentzia fisikorik gabe, zaila zen itsasoan abiadura neurtzea. Prozesua ontziaren popatik soka bat lotuta zuen enbor bat edo egur zati bat botata hasten zen. Enborra ur azalean flotatzen eta geldirik geratu arte itxaroten zuten, eta ondoren hasten ziren itsasontzia egurretik zer abiaduratan aldentzen neurtzen.

Distantzia kalkulatzeko, sokari korapiloak egiten zizkioten, batetik bestera 47 oineko gutxi gorabeherako tartek utziz, eta korapiloak kontatzen zituzten soka ontzitik irten ahala.

Baina abiadura neurtzeko, distantzia unitateez gain, denbora unitateak behar zituzten, eta harea ordulariak –minutu erdi inguruak– baliatu zituzten horretarako. Beraz, bi lagun behar ziren lan

horretan: bata erlojua iraultzeko eta bestea korapiloak kontatzeko. Eta erabilitako tresnak oso zehatzak ez zirenez, emaitzak ere hala-moduzkoak izan ohi ziren.

Dena den, denboraren eta korapiloen arteko proportzioa doitu zuen joan zen, orduko itsas miliekin bat egin arte, eta egun, sateliteen garaian, oraindik ere korapiloak dira itsasoan abiadura neurtzeko erabilitako unitateak. ■